

LANKIDETZA-HITZARMENA, Nafarroako Foru Komunitateko Lurralde Kohesiorako Departamentuaren eta Lesakako Udalaren artekoa, Lesakako Udal Plan Orokorra (UPO) egiteko

Iruñean, sinadura digitalaren egunean.

BILDU DIRA:

Alde batetik,

José Antonio Marcén Zunzarren jauna, Nafarroako Foru Komunitateko Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia.

Eta, bestetik,

Ladis Satrustegui Alzugaray, Lesakako Udaleko alkatea.

ESKU HARTU DUTE:

Nafarroako Foru Komunitateko Lurralde Kohesiorako Departamentuaren izenean eta hura ordezkatzuz, eta Lesakako Udalaren izenean eta hura ordezkatzuz, hurrenez hurren.

Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusiak eskumen hori du, 249/2023 Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriko 4. apartatuak esleitzen baitio (249/2023 Foru Dekretua, azaroaren 15ekoa, Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena).

Udaleko alkateari, berriz, 2023ko uztailaren 20ko osoko bilkuran hartutako erabakiaren bidez eman zitzaion horretarako baimena.

AZALDU DUTE:

1. Bi alderdiek adierazten dute lankidetzan aritu nahi dutela udal-plan orokorra egiteko, hirigintza-lankidetzako hitzarmena sinaturik eta bertan adierazten diren baldintzak beren gain harturik; hori guztia, 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz, eta bereziki haren 17., 19., 20.2, 21. eta 66.3 artikuluetan ezarritakoari jarraikiz (1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena).
2. Bi alderdiek adostu dute lankidetzaren hitzarmen hau sinatzea, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina (aurrerantzean, LAHFLTB) onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 20. eta 21. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta jarraian adierazten diren klausulekin bat.
3. Horretarako, Lesakako Udalak dagokion erabakia hartu zuen 2023ko urtarrilaren 25ean, eta Udal Plan Orokorra (aurrerantzean, UPO) egiteko asmoa adierazi zuen hartan, aipatutako legegintzako foru-dekretuan ezarritako baldintzei jarraikiz.

ESTIPULAZIOAK:

LEHENA.- Printzipio orokorrak

Lesakako UPOak abiapuntutzat hartu behar ditu gaur egun indarrean dagoen plangintzaren irizpide orokorrak eta printzipio inspiratzaileak, horiek lurraldearen eta hirigintzaren egungo errealitatera egokitzeko.

UPOa prestatzeko metodologian bermatuko da parte-hartze publikoa egokia eta legearen araberakoa izan dadila, eta Udalak etengabeko jarraipena egingen du.

BIGARRENA.- Xedeak

Ondoren deskribatzen dira alderdiek hitzarmen honetarako adostu dituzten helburuak, baina kontuan hartu behar da aldatzen ahalko direla, behar bezala oinarritutako arrazoiak badaude eta hirigintzako eta lurralde-antolamenduko gaiekin zerikusia badute, organo eskudunek alde zuzenak erabakia hartuta.

Udalaren xedeak aldatzen ahalko dira informazio eta parte-hartze publikoaren azterketan eta diagnostikotan oinarriturik. Aldaketa horiek ez dute berez ekarriko kalkulaturako aurrekontua handitzerik, nahiz eta gehikuntza hori modu arrazoituan hitzartzen ahalko den justifikatutzat jotzen denean.

2.1. Foru-intereseko helburuak:

- UPOak LAHFLTBaren **helburu eta printzipio** orokorrei erantzunen die, eta, bereziki, xede izanen du lurralde-okupazioaren estrategia eta eredu bat definitzea, udalerrria modu jasangarrian garatzea eta herritarren bizi-kalitatea hobetzea.
- **Garapen jasangarriari** dagokionez, UPOak honako hauek sustatuko ditu: herrigunearen hazkunde trinkoa, eraikinak birgaitzea, energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak, klima-aldaketaren ondorioekiko kalteberatasuna murriztea, mugikortasun jasangarria, irisgarritasuna eta paisaia zaintzea.
- UPOa gizartearen behar eta nahien arabera egingen da, herritarren **parte-hartze** ahalik eta zabalena sustatuz, eta herritarren ezaugarrietara egokituta, eta partikularren eta beren interesen alde eratutako entitateen informazio eta ekimenerako eskubideak bermatuz.
- UPOan **hirigintza inklusiborako** irizpideak sartuko dira, espazio publikora ekarriko dira herritarrek eguneroko bizitzan egiten dituzten eskaerak, pertsona guztien autonomia sustatuko da eta erantzuna emanen zaie sexua, adina edo mendekotasuna dela-eta kalteberenak diren herritarren beharrezko sozialei.
- UPOak tresna **erraza eta praktikoa** izan behar du, biztanleek ulertzeko modukoa, eta udalerrian jarduera sozial eta ekonomikoari eusteko baliagarria. Halaber, lurzorua antolatzeke, arautzeke eta kudeatzeko mekanismoak ezarri beharko ditu, egungo biztanleriari eusten lagundu eta biztanle berriak erakartzeko, hori guztia Lesakako udalerriko biztanleriaren ezaugarriak (dentsitatea eta zahartze-indizea) kontuan hartuta.

- UPOak lurralde- eta hirigintza-ereduan txertatuko ditu klima-aldaketa arintzeko eta hartara egokitzeko neurriak; horretarako, eskura dauden klima-agertokiak hartuko dira kontuan, eta planean sartu beharreko neurriak identifikatuko dira.
- Nafarroa Atlantikoko Lurralde Antolamenduko Planean (LAP-2) ezarritako aurreikuspenak, gidalerroak eta determinazioak errespetatu eta garatuko ditu, aintzat harturiko ardatz estrategikoetan: Natura- eta kultura-ondarea, hiri-sistema eta azpiegiturak.
- UPOak lurralde-inguruneari erreparatuko dio, eta hurbileko udalerriekiko harremana indartuko du (Bera, Igantzi eta abar), eta aztertuko du nola lotu daitekeen herriko **bide-sarea** lehendik dauden errepideekin eta aurreikusten diren errepide berrieekin.
- Proposatutako hirigintza-ereduak eskatutako **oinarrizko azpiegiturak** (hornidura, saneamendua, hondakinak eta abar) aurreikusi eta eguneratuko ditu, kasua denean, Nafarroako Gobernuaren plan zuzentzaileekin koordinatuta.
- Egungo hiri-ehuna mantentzen eta hobetzen dela bermatuko du eta, orobat, behar bezala lotzen dela proposamen berrieekin.
- Bizitegi-lurzoruaren **beharrak** konponduko ditu, eta, horretarako, kasua bada, aztertuko du zer behar dauden eta egonen diren babestutako etxebizitzetzi, zuzkidurei eta jarduera ekonomikoetara dagokienez, udalerraren egungo eta etorkizuneko eskakizun eta nahien arabera, bai eta proposatutako hirigintza-garapeneko ereduaren arabera ere.
- Herritarren zerbitzurako **sistema orokor** egokiak aurreikusiko ditu, bereziki espazio libreak eta berdeguneak, baita zuzkidurak ere, eman beharreko zerbitzurako leku apropos eta egokienetan kokatuta.
- Kultur ondareari dagokionez, babes berezia behar duen ondare higiezina identifikatuko du, eta ondare horren inbentarioa eta katalogoa jasoko ditu: Bidasoko bide berdea eta Agiñako monumentu megalitikoak.
- UPOan landa-lurzorutik igarotzen diren ibilbideak, bidexkak edo oinezkoentzako bideak sartuko dira, naturaren aldetik interesa badute edota irisgarritasuneko udal-sare bat osatzeko egokiak badira: Bidasoko bide berdea, EuroVelo 1 ibilbidea, GR-11, Trekking Bidasoa GRa eta abar.
- Ingurumenaren eta paisaiaren aldetik balioa duten babes bereziko eremuak identifikatu, babestu eta grafikoki definituko ditu, Udal Plan Orokorren lan-eskalaren arabera. Eremu horiek LAP-2an jasota daude, eta honako hauek dira:
 - Igarobide ekogeografikoaren bidezko konektagarritasuna (Nafarroa atlantikoa - silizeoa) eskualde- eta lurralde-mailan, Natura 2000 Sarearekin muga egiten duten eremuen artean eta isurialdeen banalerroko gailur eta mendilerroen artean (Aiako Harria, Bianditz, Aritxulegiko lepoa eta Unanua aldeko ingurunea).
 - Bidasoa ibaiak eta Endaraerrekak eratutako ibai-sistema.
 - Interes bereziko landaredia: xarmaren banaketa-area potentziala.
 - Frain mendiko paisaia berezia.

- UPOan sartuko dira sektoreko legediak jada babestutako lurzoruak, dagoeneko onartuak dauden mugaketarekin eta arau-definizioarekin batera, hala nola Bidasoa Ibaia kontserbazio bereziko eremua, Domiko urtegiko sekua (MN-36 natura-monumentua) eta onura publikoko 566. mendia (Zalako erreka, Endaraerreka eta Otsango).
- Uholde-arriskuengatik babestu beharreko lurzoru urbanizaezina identifikatuko da, eta arriskua zonaka bereiziko da, LAP-2aren PN4 eta PN5 eranskinetan ezarritakoa kontuan hartuta. Onin errekaren inguruko uholde-arriskuak baldintzatuko ditu etorkizuneko proposamenak.
- Landa-lurak antolatu eta haien hirigintza-erregulazioa ezarriko du, **gorde beharreko lurzoru urbanizaezin** gisa sailkatuta, kontuan hartuta haien nekazaritza-, baso- edo abeltzaintza-balioa, paisaia-, arkeologia-, kultura- edo ingurumen-balioak, eta lurralde-konektagarritasuneko funtzioak. Lesakako ingurumena eta paisaiak askotarikoak eta aberatsak dira, eta honako lekune hauek daude udalerrian, ingurumenaren eta paisaiaren aldetik interesa dutenak:
 - o Kopako harria eta Aiako Harriaren inguruko granito-azaleratzeak, paisaiaren eta naturaren aldetik balioa baitute.
 - o Agiñako gaina eta Agiñatik Zumarrako gainera arteko gailur-lerroa.
 - o *Nardus stricta* espeziearen larreak, txilardi atlantikoak, gaztainadi zaharrak, *Quercus pyrenaica* espeziearen ameztiak, pagadi azidofiloak, ibaiertzeko haltzadiak, eta ura darien ezpondetako eta iturburuaren inguruetako habitatak, intereseko landare-espezieak baitituzte.
- Arreta berezia jarriko zaio landa-lurzoruan eraikin berriak ezartzeari, paisaia itxuratzen duten nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-jarduerekin bateragarriak izan daitezen, eta ugaritu ez daitezen.

2.2. Udal-intereseko helburuak.

- Udal Plan Orokorrean jasoko dira indarrean dagoen plangintzaren hasierako aurreikuspenetatik kanpo garatu eta gauzatu diren hirigintza-jarduketak eta azpiegiturak.
- Udal Plan Orokorra hirigintzako arau orokor indardunak (jatorrizko araudian gerora izandako aldaketak barne) berrikusi eta eguneratuko ditu, kontuan hartuta zein diren gaur egungo irizpideak, baldintzatzaileak eta beharrak, anbigutasunak saihestuko ditu, eta behar bezala zehaztuko ditu behin eta berriz errepikatzen diren puntu gatazkatsuak (eraikigarritasuna, erabilerak, lurzoru urbanizaezineko jarduerak eta abar).
- Udal Plan Orokorra berrikusi beharko ditu garatu gabe gelditu diren egikaritze-unitateak eta unitate asistemakoak, hiri-lurzorukoak eta lurzoru urbanizagarrikoak, eta herrigunearen hazkunderako eredu berria planteatuko du, herritarren egungo beharretara eta egungo sustapen-ahalmenetara egokitua.
- Udal Plan Orokorra planteatuko du zein etxebizitza- eta hirigintza-ereduk izanen duen lehentasuna, kontuan hartuta zer behar dituzten herritarrek gaur egun, ez dadin erabili eredu zaharkiturik edo testuingururik gabekorik.

- Udal Plan Orokorrak lurzoruaren egungo sailkapena berrikusiko du, baita kasuan kasuko mugaketak eta lurzoru urbanizaezinaren kategoriak eta azpikategoriak ere, eta behar diren eguneraketak egingen ditu, bat etorritik egungo lurralde-irizpideekin eta errealitate fisikoarekin.
- Udal Plan Orokorrak ordenantza indardunak (jatorrizko araudian gerora izandako aldaketak barne) berrikusi eta eguneratuko ditu, kontuan hartuta zein diren gaur egungo irizpideak, baldintzatzaileak eta beharrak, anbiguotasunak saihestuko ditu, eta behar bezala zehaztuko ditu behin eta berriz errepikatzen diren puntu gatazkatsuak (itxiturak, igerilekuak, plaka fotovoltaikoak, terrazak, industria-eraikinak eta bestelako eraikinak).
- Udal Plan Orokorrak Onin ibaiaren uholde-arriskua aztertuko du, batez ere herrigunean, Landazelaia aldean eta Otsango auzoan, egungo uholde-arriskuaren arabera egokituko ditu aurreikuspenak, eta ibaia bideratzeko aurreikusten diren jarduketak jasoko ditu.
- Udal Plan Orokorrak aztertuko du zer hobekuntza egin daitezkeen ibaiertzeko pasealekuan jarraitutasuna egon dadin, helburu hartuta Otsango eta Biurrana auzoak oinezkoendako lotzea, ibaiaren ibilguari jarraituz.
- Udal Plan Orokorrak Landazelaiko eremua berrantolatu beharko du, uholde-arriskura egokitzeko eta hura murrizteko aurreikusten diren jarduketak jasotzeko.
- Udal Plan Orokorrak aztertuko du zer aukera dagoen Arcelor-Mittal pabiloi industrialean jarduteko eta haren zati bat berreskuratzeko, beste erabilera batzuk izan ditzan; izan ere, pabiloiaren zati handi batean ez dago jarduerarik, eta ez da erabiltzen.
- Udal Plan Orokorrean txertatuko da eta erantzuna emanen zaio NA-4001 saihebidetaren garapenari eta loturari (gaur egun Arcelor-Mittal industrialdean bukatzen da), Biurrana aldean NA-4000 errepidearekin lotzeko eta Nabaz auzorako sarbidea hobetzeko.
- Udal Plan Orokorrak hirigune historikoa mugatu beharko du, Intereseko Eraikinen Katalogoa berrikusi, eta lehentasunez birgaitu beharreko area bat mugatu eta hari dagokion udal ordenantza onetsi, katalogatutako eraikinak birgaitzea sustatzeko.
- Udal Plan Orokorrak plangintzaren egitura orokorrean txertatu beharko ditu merkataritza erakartzeko eta antolatzeke planaren irizpideak, interes orokorraren aldeko eta udalaz gaindiko ikuspegia jasoko du, zenbait eremutan merkataritza biziberritzeko jarduketak aurreikusiko ditu, eta lurzoruaren sailkapenari eta kalifikazioari dagozkien kontzeptuak eta definizioak egokituko ditu.
- Udal Plan Orokorrak erantzuna eman beharko dio Lesakako herrigunean aparkaleku-plazak ezartzeko beharrari, eta aparkaleku-plaza publiko gehiago ezartzeko berrantolaketa eta aurreikuspena egingen ditu. Halaber, baldintzatza ezarriko du herrigunean dauden eraikinak egokitzean plaza berriak aurreikustea.
- Udal Plan Orokorrak Lesakako auzo tradizionalak mugatu beharko ditu, eta argi eta garbi bereizi beharko ditu gainerako lurzoru urbanizaezinetik.
- Udal Plan Orokorrak Alkaiaga Kale Nagusiaren eta Alkaiaga Erdiko kalearen bide-egoera konpondu beharko du, eta kale horiek berroneratu eta berrurbanizatu.
- Udal Plan Orokorrak NA-4000 errepidea oinezkoendako moldatu beharko du Albistur kalean, hirigune historikoa eta Otsango auzoa oinezkoendako lotzeko.
- Udal Plan Orokorrean aztertu beharko da zer aukera dauden Otsango auzoan hiri-berroneratze orokorra egiteko, espazioak berrantolatuko ditu industriako erabilera eta jarduerak ezartzeko, eta Zambra eraikinaren egoerari erantzuna emanen dio.

- Udal Plan Orokorra erantzuna eman beharko dio Lesakako osasun-etxea handitzeko ekipamendu-beharrari.

HIRUGARRENA.- Lankidetzak ekonomikoa.

Udal-plan orokorra idazteko lanek laguntza ekonomikoa jasotzen ahalko dute, bat etorritik azaroaren 16ko 98/2022 Foru Dekretuan jasotzen diren baldintzekin, foru-dekretu horrek ezartzen baitu udal hirigintza-plangintza prestatzeko laguntzen araubidea.

98/2022 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera izanen dira dirulaguntza emateko prozedura, zenbatekoak eta ordainketak, bai eta balizko itzulketak ere.

Nolanahi ere, hitzarmen hau sinatzea ezinbesteko baldintza da 98/2022 Foru Dekretuan araututako laguntzak eskuratzeko.

LAUGARRENA.- Beste lankidetzak neurri batzuk.

Bi alderdiek konpromiso hauek hartu dituzte:

4.1. Kartografia, dokumentazioa eta ordezkartza.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak lagako du Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sisteman (SITNA) eskura dagoen kartografia oinarritzakoa eta tematikoa, UPOa prestatzeko prozesuan baizik ez erabiltzeko baldintzapean.

Udalak beharrezkotzat jotzen badu kartografia espezifikoa prestatzea, hartan erabiltzen diren formatuek bateragarriak izan beharko dute Nafarroako Lurraldeari buruzko Informazio Sistemarekin (SITNA).

UPOa indarrean sartu aurretik, Udalak agiria entregatuko dio Lurralde Kohesiorako Departamentuari, urriaren 16ko 253/2019 Foru Dekretuan tresna hori osatzeko eta aurkezteko ezartzen den formatuan, foru-dekretu horrek arautzen baititu Nafarroako Planeamenduaren Erregistroa eta Nafarroako hirigintza- eta lurralde-plangintzarako tresnak aurkezteko formatua.

Kartografia informatikoari dagokionez, baldin eta Lurralde Kohesiorako Departamentuak bestelako baldintza teknikoak ezartzen baditu UPOa behin-behinean onetsi aurretik, horiek ere bete beharko dira.

4.2. UPOko dokumentuen aleak egin ahala ematea, baita behar diren departamentu eta erakundeei bidaltzeko behar direnak ere, UPOaren ereduak behar duen tramitazioarekin bat.

4.3. Beste alderdiak eskatzen dion informazio erabilgarri guztia ematea.

4.4. Proposatutako konponbideen gaineko kontsiderazio kritikoak osatzea, legediarekin eta hitzarmenarekin bat datozen aukerak proposatuz.

Alderdietako bati ere ezin izanen zaio inposatu bere eskumenak urratzen dituen baldintza edo determinaziorik.

BOSGARRENA.- Udalaren betebeharrak.

Lesakako Udalak, hitzarmen honetan ezartzen zaizkion betebeharrak gain, honako hauek ere izanen ditu:

a) Udal-plan orokorra egitea eta onestea bere eskumeneko fase guztietan, bat etorritz Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginarekin, laguntzen helburua betez.

b) Irailaren 11ko 59/2013 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Parte-hartze Demokratikoari buruzko martxoaren 22ko 12/2019 Foru Legean ezarritako gardentasun-betebeharrak bete beharko ditu. Betebehar hori ez betetzeak aipatutako foru-dekretuaren 7. artikuluan aurreikusitako ondorioak ekarriko ditu.

SEIGARRENA.–Jarraipen Batzordea.

LAHFLTBaren 66.4 artikuluekin bat, Jarraipen Batzordea eratzen da Lesakako UPOa idazteko, behin betiko onartu arte.

6.1. Batzordea honako ordezkari hauek osatuko dute:

- Toki-entitatearen ordezkariak:

Alkatea	Ladis Satrústegui Alzugaray jauna
Zinegotzia	Argiñe Ordoki Urkixo andrea
Zinegotzia	Pello Astiz Elverdin jauna
Zinegotzia	José Luis Echegaray Andueza jauna

- Lurralde Kohesiorako Departamentuaren ordezkariak:

Hirigintza Ataleko burua	Javier Redín Sarasola jauna
Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko arkitektoa	Daiana Espina Ortiz de Guinea andrea

Jarraipen Batzordeko burua Lurralde Kohesiorako Departamentuko ordezkarietako bat izanen da.

6.2. Hitzarmenak indarra duen bitartean batzordekideren bat aldatzen bada, elkarri jakinarazi beharko diote alkateak eta Lurralde eta Paisaia Zerbitzuko zuzendariak; aldaketak hitzarmenari gehituko zaizkio.

6.3. Jarraipen batzordea LAHFLTBaren 66. eta 71. artikuluen edukiaren arabera arautuko da.

Hitzarmen honetan aurreikusten ez den orotan, aplikatzekoa izanen da administrazio-prozedurari buruzko oinarrizko legeriak kide anitzeko organoen funtzionamenduaz xedatzen duena.

ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren izaera.

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, eta honako hauetan xedatutakoaren arabera arautuko da: LAHFLTBa; 11/2019 Foru Legea, martxoaren 11koa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzkoa, eta aplikatzekoa den gainerako legeria.

Hitzarmen hau interpretatzean edo betetzean sortzen diren desadostasunak Iruñean egoitza duten administrazioarekiko auzien epaitegien jurisdikzioari loturik egonen dira.

Aurreko guztia irakurri ondoren eta ados daudela erakustearren, honako hitzarmen hau sinatzen dute, bi aletan eta ondorio juridiko bakarrekin, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

Nafarroako Foru Komunitateko
Administrazioaren izenean

Lesakako Udalaren aldetik,

Stua.: José Antonio Marcén Zunzarren
Lurralde Antolamenduko zuzendari
nagusia

Stua.: Ladis Satrustegui Alzugaray
Alkatea